

# Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1992ko apirilak 3 / II urtea / 18. zenbakia

## Bertoko zuhaitzetako mintegiak Labianon

Haritzak, fagoak, korostiak, intsusak edo ametzak Nafarroako bertoko zuhaitzak izanik, ahalegin hutsala zen duela gutxi arte landareak lortzen saiatzea, eta gehienetan, basoan bertan hartu behar ziren landare haziak, nor bere kabuz hazitzeko. Nafarroako Gobernuak mintegietan, bakarrik birlandatzeko errentagarriak diren espezieak izaten dira eskura, eta bertakoei, frankotan, ez ohi zaie behar adina arreta eskeini. Guzti horretaz jabeturik, ANAT-LANE talde ekologistak duela bi urte zabaldu zituen Labianon (Aranguren), bertako espezieak landatzeko mintegiak, eta luze gabe kanpaina bati ekingo dio udal zein ikastetxetan, birlandaketak Nafarroa osora zabaltzarren. Hamazazpi espezie dute bertan, eta oraindik jendeari zabaldua ez badago ere, ez dute aukera hori baztertzen aurrerantzerako.

### Barnean

#### BERTSOLARITZA



Nafarroako txapelketaren finala igandean Iruñean /III

#### PERURENA



Koloreak euskal usadioan aztertu ditu /VIII



### Metropoli forala



#### FELIPE RIUS

**D**uela hogeitun urte galtza motzetan ibiltzen nintzen Iruñeko kale hotzetan —amak horrela hankak indartuko zitzaizkidalda esaten zidan nik praka luzeak zeramatzen gizontxoenganako inbidia adierazten nuen bakoitzean— eta, jakina, apaizen kolejioan ez zuten Arturo Kanpionen izena behin ere aipatzen. Hala ere, ikasturte baten hasieran, erlijiozko klasean, apaiz batek ulertzen ez genituen hitz batzuk harbelean idatzi eta kopiarazi zizkigun: 'Aita gurea zerueta zerana' eta abar. Handik aurrera, apaiz zahar harekin klasea tokatzen zitzaigunean, pupitretik papera atera eta denok —zenbait urte beranduago kate bat eskuetan zeramatela *Viva Cristo Rey* oihukatuz kolpeak banatzen zituztenek ere, piko bat zainean sartuta izkina batean betiko gelditu direnek ere— hitz ezezagun haiek irakurtzen genituen buruz ikasi arte. Gu baino zaharxeagoak zirenak batzarretan biltzen hasiak ziren kolejioko patioan eta frontoian k-z eta —gero jakin ahal izan genuenez— ortografia akatsez beteriko esaldi batzuk azaldu ziren. Beste apaiz batek —inguraturik geunden— mendizaletasuna sartu zigun eta goizeko bostetan altxatzen ginen, hiru pare galtzerdi, gorria, berdea eta zuria bata bestearen gainean jarrita, Moncayo, Pirineo eta Larrun aldera autobus zaharretan zorabiatu abiatzeko. Adoleszentziako militantzia, harriak, farrak, bilerak eta beharbada garai hartako konpromezu serio bakarra, euskal kulturarena, euskararena. Nor-nori-nork subjuntiboan menperatu genuen, gezurra badirudi ere Lertxundiren kantak buruz ikasi genituen eta gure lehendabiziko lana lortu genuen Konpañia kaleko pisu txiki batean. Geroago trasladoo, lehenbiziko porroak, kitarra elektrikoak, La Pollaren abestiak, metodo komunikatiboa, tentsio haundiko bilerak, lorik egin gabeko barnetegiak, eszizioak, sekrekzioak, euskal Talking Heads, komikilariak eta beste gauza asko etorriko ziren.

Hogeitun urte pasa dira, soiltzen hasi gara, zahartu egin gara —hala ere honen gainean dagoen argazkiak ez dit justiziarik egiten—, bide desberdinak hartu ditugu eta neuronak itzaltzen hasi zaizkigu, baina azken hogeitun urte hauetako izen zerrenda bat egin beharko bagenu, Arturo Kanpion agertuko litzateke Iruñerriko euskaldun askoren oroimenean.



## Gure aukerak

### MUSIKA



**Izugarri folk taldea** gaur, apirilak 3, arratsaldeko zortzietan Lizarrako kontserbatorioan arituko da. Kontzertua AEK erakundeak antolatuta du AEKjira kanpaina dela eta.

**Los del Rayo**, Julio Kageta eta Sociedad Alkoholika Lizarrako Institutuan arituko dira larunbatean, apirilak 4, gaueko hamarretan. Javier Zurbano eta Joseba Lazkano nafar intsumiso presoan aldeko kontzertua izanen da haxe, eta aurretik manifestaldia izanen da Lizarrako kaleetatik zehar.

**Enrique Villarreal** 'El Drogas', Barricada taldeko baxujole eta abeslaria, larunbatean, apirilak 4, gaueko hamaiketan Lakuntzako Ilargi dantzalekuan aurkeztuko du bere disko berria. 'Txarrena' da diskaren izena eta txantrearrak bakarka plazaratzen duen lehendabizikoa da.

**Santa Cecilia** orkestra eta Iruñeko Orfeoak emanen diote hasiera Iruñeko Santo Domingo elizan apirilaren 6tik 9ra izanen den kontzertu sakro zikloari. Kieveko orkestra filarmonikako Dumka korala izanen da apirilaren 7an eta 8an kontzertuak eskeiniko dituena, eta apirilaren 8an zikloari amaiera emanen dio Iruñeko Orfeoak Kieveko orkestra filarmonikoaren laguntzaz.


**Paulino Otamendi** ganbara musika taldea arituko da Los

Aurtengo Nafarroa Oinez Vianan izanen dela eta, bertan antolatu diren kultur ekintzen barruan Gaita Eguna dago iragarrita asteburu honetarako. Egun hau Erentzun ikastolak, 'Euskarari bidea eginez' lemapean prestatu dituen ikustaldien hasiera izanen da.

Larunbata, hilak 4, arratsaldeko zazpitan hitzaldia izanen da Vianako Kultur Etxean, Javier Lakunza eta Jose Luis Fraile musikarien eskutik. Beraiekin batera, Felix Cariñanos historialaria arituko da gaitaren egoeraz, bai Nafarroan nola Vianan bertan. Igandea, Lizarrako gaiteroekin diana izanen da, eta eguerdian, plazan, musika ekitaldia eskeiniko dute. Arratsaldeko hiruretan bazkaria izanen da San Frantzisko eliz zaharretan.

Festa honekin batera Viana eta inguruak bisitatzeko parada ederra daukagu bertan. Viana 1219an fundatu zuten, eta garrantzi handiko zentrua izan da his-

## Gaitarekin oinez



torian zehar. Horren lekuko ditugu oraindik gaur egun gordezen diren eraikin eta monumentuak. Horren inguruan Cañaseko aintzira da azpimarratzekoa, ber-

tan dauden espezie ezberdinen interesa dela eta.

Aras, Bargota, Torres del Rio, eta alde osoa da dotorea oso, bartz oparoen artean.

Amigos del Arte aretoan apirilak 9, eta gabeko bederatzietatik aurrera. Kontzertua IKAK antolatu du Arturo Kanpion euskaltegiaren 20. urteurrena dela eta.

### MINTZALDIAK

'Pirinioetako Hartzia' deritzan mintzaldia eskeiniko du Jose Ramon Aihartzia biologoak, Iruñeko

Hizkuntza Eskolan arratsaldeko zazpi terdietan. Mintzaldian, biologoak animalia honen ezaguerriak, bizitza eta egungo egoera aztertuko du. Hitzaldi honek amaiera emanen dio Udako Euskal Unibertsitateak eta Iruñeko Udalak antolatu duten euskerazko hitzaldi zikloari.

'Ekialdearen matxinada' titulupean jardungo da Ricardo

Estarriol kazetariak, Nafarroako Merkatal Ganbarak Yaunguas y Miranda kalean duen aretoan. Gaur, apirilak 3, ilunabarreko zortzietan izango da Nafar Ate-  
neoak antolatzen duen ekitaldi hau.

**Xabier Mendigurenek** 'Hamalau' bere azken liburua aurkeztuko du asteartean, apirilak 7, ilunabarreko zazpi terdietan,

Iruñeko Udalak Zapateria kalean duen aretoan.

'Hispaniarrak Estatu Batuetan' deritzan hitzaldia eskeiniko du Joaquin Roy estatubatuar-  
rrak. Nafar Ate-  
neoak antolatu-  
tako ekitaldi hau, Iruñeko Udal Aurrezki Kutxak Ejerzito etorbidean duen egoitzan izanen da apirilaren 8an, arratsaldeko zortzietan.

### ZINEMA



**Vittorio de Sicaren** 'Atzo, gaur eta bihar' pelikula eskainiko da apirilaren 9an, ilunabarreko zortzietan eta gaueko hamar terdietan Tafallako Español zinem-  
man. Filmea, kultur patronatuak antolatu duen italiar zinema zikloaren barne kokatzen da.

### ERAKUSKETAK



**Jose Luis Mayoren** 'Parisen gainbeherakada' margo erakus-  
keta izanen da ikusgai Iruñeko Gotorlekuko mistoen pabilioian. Astegunetan arratsaldeko sei terdietatik ilunabarreko zortzietara izanen da irekita pabilioia, eta jaiegunetan eguerdiko hamabi terdietatik arratsaldeko ordubietara.

**Xabier Idoate** artista nafarraren obra ikusteko aukera izanen da Iruñeko Pintzel galerian gaurtik, apirilak 3, apirilaren 29a arte.

**Aniel Quiroga** margolariafen obren erakusketa apirilaren 12a arte egonen da ikusgai Lan Kide Aurrezki Kutxak Sarasate pasealekuan duen aretoan.

### ERRAN DUTE

**PSNk UPNreki-  
ko duen jarrera  
garbi dago: egurra eta  
egurra dotrina ikasi arte».**

**Jose Ignacio Lopez  
Borderias**  
Lan Publikoetarako kontseilaria

«Urbanek minak baditu,  
baina denek dituzte. Batzuk  
besteak baino saiatuagoak  
dira».

**Fermin Ezkurra**  
Osasunako presidentea

«Escrivaren beatifikazioa  
ez da egokia eta hankasari-  
tzea da».

**Fermin Andueza**  
Apaiza

«Ez dakit, baina hamazor-  
tzi puntu etxean galtzea oso  
arraroa da».

**Fermin Gomez**  
Azkoyen futbol taldekoa

### ASTEKO PERTSONAIK


#### Miguel Indurain



Txirrindularia

A  
tarrabiako txirrindulariak Aezin izango du parte hartu Euskal Herriko itzuliaren aurtengo edizioan, gaixo dagoela eta. Indurainek ohizko hasiera izan du aurtun ere eta gaixo eta marrantaturik dabil. Hain zuzen ere, gaixotasuna izan da Migu-  
len egoera fisikoa kaskarra eragin duena, duela gutxi Indurainek berak iaz baino hobeto zegoela adierazi bait zuen. Banesto taldearendako ustekabe garrantzitsua da honakoa, Atarrabiakoaren prestakuntzaren atzerapena ekar bait lezake. Hala ere, gogoratu behar iaz ere ez zuela proba honetan parte hartu.

#### Santi Quiroga



Kontzientzia objektorea

S  
anti Quiroga Arrotxapeako Sintsumisioa epaitu zuten atzo Sevillan, soldadutzan egonda objektzioa aurkezteaz akusatuta. Militarren kodearen arabera, desertzio delitua. Santi Quiroga soldadutzan zegoela hasi zen Golkoko Gerra, eta orduan objektatu zuen. Ondoren, Foru-  
zaingoak atxilotu zuen Nafarroako Diputazioan, eta Alcalan gartzelatu zuten. Hilabete pasata aske utzi zuten. Hau izan da mota honetako kontzientzia objektore bati egiten zaion lehendabiziko epaiketa, eta fiskalak sei hilabete gartzela eskatu zuen gazte-  
rendako.

#### Pedro Burillo



NUPe-ko errektore ohia

N  
afarroako Unibertsitate Pub-  
likoko errektore ohiak Ika-  
se Abertzaleak egindako manifes-  
tua sinatu du, Nafarroako kultura,  
kirola eta gizarteko beste hainbat pertsonaiekin batera. Manifestu horretan «unibertsitate publikoa, kalitatezkoa eta osoaren» aldeko eskaera egiten da, eta salatu egiten da dirulaguntzen murrizketak eta Unibertsitatearen egoera orokorra. Gogoratu behar Burilloren txanda hartu zuen Gonzalez errektoreak makina kritika jaso dituela bertan dagoenetik. Manifestua ere alderdi politiko eta sindikatu zen-  
baitzuk sinatu dute.

### ADI !

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10etara... **Xinguli Mangulu** haurrendako saioa.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 13.00etatik 13.45etara... **Informazio Saioa** Baztan, Malerreka eta Bortzirietako informazioa. Elizondo, Bera eta Lesaka egunero.

#### HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.9

Asteazkenan FMn 21.00etatik 22.00etara... **Gautxori** irrat-  
saio musikala. Narrazioak.

#### RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkar-  
rizketak.



**L**ruñeko Gaiarre antzokian izango da heldu den igandean Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finala. Donazarre, Luzaide eta Sunbillako saioen ondotik, zortzi finalistak arituko dira Manolo Arozenaren

txapelaren bila. Haien artean, aurten go berrikuntza eta pozarik handiena: Estitxu Arozena eta Xabier Silveira lesakar gazteak. Berrikuntza nabaria, alegia, urtetan zehar ezari ezarian mugitzen zen nafar bertsolaritzarendako.

Bertso eskolek beren fruitua eman dute, eta oraingo erronka maila orokorra igotzea da. Horretan ezinbestekoa dirudi nafar bertsolariak urtetan zehar plazaratzeak, orain arte gutxitan gertatu dena.

## Final historikoa Gaiarren

PATXI ULAIAR / IRUNEA


Igandean jokatu den finalak bi protagonista izango ditu, du-darik gabe, gazteek aurtengo ustekabea eman bait dute, baina beste bi bertsolari txapelketa ongi ezagutzen dutenen gogoan izango dira: Kexux Arzalluz eta Jean Pierre Mendiburu.

Arzalluzek bertso saio bikaina burutu zuen Donezazarren, eta garbi erakutsi zuen gehiago arituz gero, puntako bertsolaria izan zitekeela. Hiru saiotan amaituta lehendabiziko tokian sailkatu zen, baina finalen bat Nafarroa Beherean ospatu arte ezin izango dugu bere benetako maila ikusi.

Mendiburu heletarra puntan aritu da beti final guztietan, eta bi aldiz izan da txapeldun: 1984ean eta 1981ean. Aurten, baina, eta gaixotasuna zela eta, ezin izan du parte hartu.

Donezazarreko saioa izan zen hoberena, kalitateari dagokionez. Arzalluz, Xalbador eta Alkhat bikain aritu ziren, eta bertso politikak entzuteko aukera izan zen. Horren lekuko, hiru bertsolari hauek ateratako puntuazioak, hiru saioak kontutan hartuta, altuenak.

**LUZAIDEKO GIRO BEROA** Luzaidekoan, akaso, mailarik apalena erakutsi zuten bertsolariek. Pozerako arrazoiak, baina, eman zuten bertan izan zen giro ederrak. Udaletxepean, berrehun bat lagun, toki gozoa eta giro polita, bai kanpoan



Mixel Xalbador eta Manolo Arozena, beti bezala faboritoak.

CARLOS VILLAGRAN

nola barruan. Aurpegi ezagun franko, eta bertsotarako toki eta jende aproposa. Esaten den bezala, «hobe bait da toki txikia eta beteta frontoi handia eta hutsa baino». Luzaidarrek ere eskertuko zuten, aspaldian ez bait zen bertso saiorik izan, eta garbi adierazi zuen Miguel Sanchez Kultura zinegotziak: «Mila esker gutaz oroitzeagatik».

Sunbillarako ikusmin aparta zegoen, batez ere bi lesakar gazteak zirela eta, eta frontoia bete ez bazen ere, sarrera polita izan zen. Giroa, baina ez zen aurrekoetan bezala berotu, bai hotzagatik nola bertso saioa oso ona ere ez zelako izan. Estitxu eta Silveirak piztu zuten arreta handiena baina

—ohitura falta ala ohitura bera ote?— gaiei heldu arte ematen zuten tarte luzeek ere izan zuten zer esanik giroa hozteko orduan.

Haietaz aparte, Arozena iazko txapelduna izan zen aipagarriena, alabaren ondotik aritzeak ez bait zion maila ona apaldu. Hala ere, lasaiegi ibili zen Manolo, txapelketarako tentsiorik gabe ibiliko bailitzan, eta gartzelako gaiak, kasu, ez zen finegi ibili. Sailkapen orokorrean laugarrena gelditu zen, baina bera izango da, berriro, finalerako faboritoetako.

Dena prest, bada, Gaiarrerako Antzokirako finalean, eta hori pasata aurrera begira hasteko garaia izango da denendako. Alda-

keta badator, nabari. Aurten izan da nafar bertsolariak saio aurretik entrenamendua egin duten lehendabiziko aldiz, eta somatu da saiatu, saiatu direla.

Betiko galderak, baina airean dirau. Noizko puntako nafar bertsolaritza? Esan daiteke inoiz baino maila altuagoa egon daitekeela, baina saioak faltan daude. Xalbador batek, kasu, zer egin lezake urtero abesten dituen hirubost saioen ordeze hogeitamar bat abestuko balitu? Lehen baze goen ohitura Gipuzkoara, kasu, bestaldeko bertsolariak eramateko, eta hor aritu ziren Xalbador zaharra eta Mattin aetza. Aspaldi honetan, baina, ez, galdutako ohitura da.

## Aldaketaren urtea aurretik pentsa zitekeena baino askoz ere arrakastatsuagoa gertatu da

P.U. / IRUNEA

Aurten txapelketa beste urtetakoa baino bitxiagoa izan dela esatea badago, arrazoi ezberdinagatik, eta ez da dudarik Nafarroako bertsolaritzaren historiara ere pasako dela, merezimendu osoz.

Etengabe aipatu da, eta temoso izateko arriskua hor izanda ere, azpimarratu beharra dago. Izan ere, Nafarroako bertsolari txapelketa ez da inoiz izan nobedaderako tokia. Batzuren saio bakanak kenduta, bertsolariak beti errepikatu izan dira. Horren adierazle, azken urteotako finalak.

Iaz izan zen lehendabiziko berrikuntza, Urko Atxutegirekin, baina aurtengoa da azpimaga-

riena. Estitxu Arozena eta Xabier Silveira, hamazapi eta hamabost urtetako lesakar ajolabaikoak, finalean arituko dira.

Ez da sobera goraiatu behar, baina bere neurrian kontutan hartzekoa da gertaera. Bertso eskoletatik ateratako gazteek urteak daramazkiten bertsolariak utzi dituzte finaletik kanpo, eta hau garrantzitsuena ez izanda ere, esanguratsua da, ez bakarrik historikoa delako, baita ere arnasa berria ekarriko diolako txapelketari.

Sunbillako saioan garbi ikusi zen. Lehendabiziko bertsoak botatzerakoan, nerbioosoagoak zeuden atzekoak, kantatu behar zuten gazteak baino. Askotaz zegoen jokuan: batzuk bertso esko-



Aldaketaren irudia: Madariaga bi gazteak atzean dituela. MANU GOMEZ

letako bultzatzaile eta maisu izanda, saio polita ateratzeko nahia; besteak urte askotan txapelketetan ibilia, berriek txanda hartuko zuten esperantza.

Eta lesakarek ongi egin zuten, «bikain» esateko moduan. Izan zuten meriturik handiena haiek dakiten bezala kantatzearena izan zen: simple, baina harira.

### Sailkapena

Kexux Arzalluz (*)	545,5
Mixel Xalbador	544,5
Ernest Alkhat	523
Manolo Arozena	522
Txomin Ezponda	520
Bittor Elizagoien	518
Estitxu Arozena	510,5
Joxe Migel Argiñarena	505
Xabier Silveira	499

(\*) Ez du parte hartuko

### mintzoak

#### Martxoa

● Aurten martxoa joan da eta ez dugu arrankura haundirik eguraldiari buruz, ez dugu gaizki erran beharrik, giro ona izan dugu eta behar bada sobera onak sasoin huntako. Bazterrak idor, errekek urtik gabe eta uria ez heldu, azken egun arte.

Hilabetearen 14 eta 15ean uri pixka bat egin zuen, uri-lankarra yorie eta aski ona. Gutxi egin zuen bai, baina halere errekek zerbait berratu ziren eta bai ubertu ere. Martxoak badi-tu bere erranairuak eta egia erran ez dira sobera ongi mintzo, noiz-baitere gaixtakeriak egin zituelakotz hain segur.

Erranairu batek hola dio: «Martxo martxanta, larru trantanta». Ele xahar hunek zerbait adierazten du, eguraldi txarrak, elurra, horma, etxetan baizik ez ardiak eta behiak goseak eta akal, ezurre eta larrue bertzerik ez zirela. Denbora batek holako mixerekek gertatuak direla erranairuak adierazten du. Martxoan ere badugu 'Garizime aizia' aski latza izaten baita. Kontakizun bat ere badaukat martxoari buruz, gizon xahar bati entzuna eta hola dio:

Baserri bateko neskatxa bat gan omen zen ferrateire etxeko behorrrakin. Ferratzaleak erran zion:

—Baituzue ardiek?

Eta neskatxak:

—Ez, martxo martxantak denak gan zazkun.

Ez dugu uste gaurko egunean holakorik gerta daitekenik, baina gure aintzinekoek zer pairamenak eta sofrikarioak yasan ote zituzten denbora batez, bizi-modu bortitza beti lanean, xur-xur bizi eta beti erremex.

Orain esne ganetan bizi gara.



# Motxila sorbaldan ibili munduan

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

**A**ste Santua oporren garaia izaten da beti. Opor laburrak, baina atsedena, finean. Motxila hartuta bideari jarraitu, edota bidaietako agentzi baten eskuetan antolaketak guztia uztea omen dira opor mota aukeratuenak. Horiekin batera, bigaizak nahasten dituzten agentzia eta kolektiboak zabaldu dira azken urteotan, hain modan dauden ekologia eta kirola oporretan ere ez uzteko. Gainbegirada egin dugu, eta jendea bere kabuz doala ematen du, agentzietara joaten den kopurua jaitsi ez bada ere. Ohizko agentzietan, ohizkoa: Europako hiriburuak, eta Mediterranea.

Aukera garbi samarra dago. Edo hartzen dituzu zure kontura motxila eta aurrera, edo bidaietako agentzien zorabioan sartzen zara, etor daitekeen guztiari aurre egiteko prest. Gomendagarriena lehendabiziko aukera izaten ohi da, batez ere zer egin nahi duzun garbi badaukazu. Lagunen bat hartu, eta abenturara ateratzea da benetako bidaiariaren lehendabiziko lema. Eta azkena askotan.

Hala ere, ez dira oso egun aiproposak zure bizitzako gogoko bidaiak egiteko. Lehendabiziz, egun gutxi direlako oso urrun joateko, eta bigarrenik, ohizko tokiak —eta ez ohizkoak ere—, lepo lepo eginda egongo direlako.

Hala ere, hori ez da ere gaindiezinezko arazoa izan behar nahi duzuna eta noranahi abiatzeko. Gora Irudimena! Baina gogoratu: urrunera joateak —askok pentsatzen duten ez bezala—, ez ditu ziurtatzen opor hobeak, ez inondik ere. Oso ezagunak diren urruneko toki askotan marketing izugarria baino ez dago, eta ezkututako txokoak bilatzen ez dituenak, frankotan, hobe pasako du bere inguruko herriak eta paisaiak bisitatzen.

## JENDEAREKIN BAT GOZATZERA

Jendearena arazoa izan daiteke aipatzen genuen irudimen hori faltan izanez gero. Toki guztiek, oso ezagunak izanda eta izugarriko pilaketak edukita ere, badute bere alde gordeta. Soilik bertakoek eta bakan batzuek ezagutzen dituzten karrika anonimoak eta zoko ilunak. Eta azkenean, beti dago jendea, hori izaten bait da bidai baten gozorie gozoena. Bertakoekin elkartzea, eta beraiekin ematea denbora, patsada ederrean. Hizkuntza ezinbesteko laguntza edota oztopo izango da orduan.

Baina guzti honetaz jabetuta ere, bidaietako agentzia baten eskuetan uzten baldin baduzu antolaketa, denetarik ere aurki dezakezu. Bidaia zuk aukeratuta gestio guztiak errezten dizun horietatik, dena antolatuta ematen dizun beste horretaraino, goizetik gauera zure bost egun horiek dagoeneko antolatuta dituenak.

## TURISMO EKOLOGIKOA AUKERAN

Azken urteotan franko ugari dira oporrak eta abentura nahasten duten agentziak, turismo berdearen izan den gorakadarekin batera. Horrela, zerbait desberdina egiterako momentuan, hauengana jotzea izan ohi dira arrazoizko aukerak. Nafarroak ere horretarako aukera aparta ematen du, baina agentzia hauen helburua ez da lurralde honetara ezta Euskal Herriara ere mugatzen.

Barañaingo Muga kolektiboa izan da aintzindaritakoa Euskal Herria osoan mota honetako bidaiak antolatzen. Esanguratsua da bere logotipoaren azpian da-

goen lema: 'Abenturak'. Aurtengorako haien aukeren artean azpimarratzekoa da Santiagoko bidaiaren ibilera, zaldiz. Orreagatik Bianaraino, apirilaren 16tik 20ra eta 22tik 26ra bitarterako dago antolatuta, eta 50.000 pezetetan bidaia, bazkaria eta tresna guztiak sartzen dira.

Atzerriari begira, Chamonix eta Zermatten arteko mendi eskiko travesia dute antolatuta. 65.000 pezetetan, apirilaren 15tik 26ra, eskiko paradisia bisita daiteke. Bakarrik adituendako. Prezioan garraioak, alokamendua eta pisten alokairuak sartzen dira.

Itsaslur da mota honetako beste agentzia nagusienetakoa Nafarroan, eta bi aukera oso ongi bereizita ditu Euskal Herrian bertan edo atzerriara atera nahi dutenendako.

Horrela, Bidarrain (Nafarroa Beherea), Baztango mugaz bestaldera eta Baigorritik gertu, 'turismoa inteligena' egiteko aukera eskeintzen du taldeak. Bertako aterpe batean, apirilaren 16tik 20ra, mota guztietako ekintzak daude antolatuta, beti inguruarekin bat eginik. Trekking, mendi txirindula, espeleologia, rafting, eta abar, 37.000 pezetetan, bazkaria, garraio, material

eta guzti barne.

Baina zerbait benetan berezia egin nahi duenarendako, zer hobe Marokoko basamortuaren zehar trekking bat baino? Apirilaren 17tik 26ra, Djebel Sarghoko bizimodua ezagutzeko parada ederra. Kanpineko dendetan, gameluak eta garriok barne, 66.500 mila pezetetan bidaia ahaztezina eskura. Harainoko bidaia aparte.

## OHIZKO AGENTZIETAN OHIZKOA

Bestalde, ohizko bidaietako agentzien artean, ba ohizkoa: Europa eta Mediterranea. Iruñeko Barcelo bidaietaren agertzen dutenez, oso aldaketa gutxi izaten dira urtetik urtera bidaietarako aukeratzen diren tokien artean. «Alde batek, oso egun gutxi dira, eta jendeak ezin du oso urrun joan. Bestaldetik, ezin da diru asko gastatu, gero udako oporrak hor daudelako, eta garai honetan leku guztietan goiko denboraldian daudelako. Horrela, eta baldintza hauekin, egokiena Europa edo Mediterranea izaten da».

Parisera, autobusez, 30.000-50.000 pezeta bitartean egin daiteke, hotelaren kategoriaren arabera. Erromara, hegazkinez, 63.900-98.500 bitar-

tean eskeintzen dute Barcelon bertan, eta Londres eta Amsterdam antzeko prezioetan dabilta.

'Euroexpressen bidaietan' azaltzen dutenez, ia garai honetarako dena itxita dago, eta soilik azken orduko erreserben kanzelazioek eman dezakete azken txokoa sartzeko aukera. Bertako arduradunak azaltzen duenez, Praha eta Amsterdam gero eta jende gehiago eskatzen du, ohizko Parise eta Londres ahaztu gabe. «Betiko eskaera dago urtetik urtera, baina esanguratsua da Sevillarako bidaiak, kasu, askoz murriztagoak izan direla aurretik. Exporen kontura, asko garestitu da, eta horrek atzera bota du jende asko». «Barruko turismoa ere gora doa, eta jendea kotxea hartzen du, eta bertako etxetan lo egiten du. Horretan, Extremadura da aukeratuenetakoa», dio agentziako arduradunak.

Diru soberan daudenendako beti daude luxozko bidaiak aukeran, eta 'Barcelon', kasu, Cancun, Santo Domingo, Brasil edo Bangkok dute aukeragai, aste beteko bidaiak denak. 'Euroexpressen', Dysneylandia gomendatzen dute, zortzi egunetan eta luxozko hoteletan. 200.000 pezeta helduendako eta 110.000 inguru haurrendako.





## Aita Jorge de Riezu euskal kulturgileari adio

IZASKUN IBARRA / IRUÑEA

Aita Jorge de Riezu, euskal kultur eta folklorea biltzen eta ikertzen, eta Aita Donostiaren musika eta literatur lana argitaratze lanetan bizitza osoa eman zuen kaputxinoa, pasa den ostiralean hil zen Iruñean. Filosofo, teologo, matematiko, euskaltzale eta poliglota: Aita Jorge de Riezu. Bere heriotzarekin kapitulu garrantzitsu bat ixten da euskal kulturaren ikerketa historian.

Casto Inza Arbeo 97 urte zituen hil zenean eta bere bizitza gehiena Lekarozko konbentuan eman zuen. Errezun (Deierri) kokaturik dagoen Iturgoineko erroten 1894 urtean sortua, 12 urtekin seminarioan sartu zen eta 1910ean apezka egin zen. Filosofia eta Teologiako ikasketak ezezik, Matematiketan doktoratu zen Zaragozan eta Lekarozen irakaslea izan zen urte askoz.

Aita Riezu ezagutzen duten guztiek bere lanerako ahalmena goraiatu dute. Jose Luis Aranguren Errenteriako Andra Mari Abesbatzako zuzendaria eta bere lana hobekien ezagutzen zuenetakoak adierazi duenez, «nahiz eta ilunpeko lana izan, nik bere irakasle lana aipatu nahi nuke. Urteak eta urteak eman bait ditu matematikak irakasten».

Baina Aita Riezuren euskalzaletasunak eta musikarekiko zuen maitasunak egin dute ezagun euskaldunen artean. Aita Donostiaren lagun mina, bere pertsona eta lana ezagutarazi du Iturgoineko erroterien semeak.

«Izugarri miresten zuen Aita Donostia eta horregatik, hil zenean, bere lana bildu eta argitaratzeari ekin zion» gogoratzen du Jose Luis Arangurenek. Jorge de Riezuri esker argitaratu dira Musika koral sakratu eta profanoko hamabi liburuak, baita bi mila abesti biltzen dituen 'Cancionero-a' ere, eta aita Donostiaren beste zenbait lan.

Izan ere, apez bien euskalzaletasuna zela medio, gerra zibila hasi zenean Ameriketara exiliatu zituzten. Baina Jorge de Riezuk autoritatearengana jo zuen Aita Donostia Europan utz zezaten, eta kaputxinoak musikologoaren ikerketa lana goraiatu eta kontinentean gelditzea ezinbestekoa zela erakutsi zien. Horrela bada, Aita Jorgeri esker Frantzia jarritu zuen bere folklorea eta musika lana Aita Donostiak.

Ollangibelan sorturiko apezka, berriz. Argentinara bidali zuten,

eta han, Baztanen jasotako datuak bilduz, 'Flor de canciones vascas' eta 'Principe Luis Luciano Bonaparte' liburuak kaleratu zituen.

1956an itzuli zen Euskal Herrira eta Aita Donostiaren bizitza eta lanari buruzko lana ezezik, 'Nafarroako Euskal-Kantu Zaharrak' liburua plazaratu zuen. Adituen iritziz 'Flor de canciones populares vascas' (1948) nahiz 'Nafarroako euskal kantu zaharrak' (1973) obra paregabekoak dira bere arloan.

Aldizkari kulturalen ohizko koraboratzailea, Jorge de Riezu Euskaltzaindiako ohorezko akademikoa izan da, baita Sociedad Vascongada de Amigos del Pais eta Eusko Ikaskuntzako kidea ere.

Izan ere, azken erakunde honek 1985an Lekuona saria eman zion, euskal kulturaren aldeko lana egin dutenentzako saria alegia. Lekarozen bertan egin zuten ospakizuna, eta sarituak Alfonso XIIIk Oñatin esandako hitzak gogoratu zituen: «Landu zeuen hizkuntza, beneragarri eta milurteko euskera, gizarteriaren altxorraren bitxi baliotsuena, gurasoengatik jaso duzuen eta semei erakutsi behar diozuen».

mintzoak

### Mattin

● Ezaugarriak:

—Izena: Mattin. Izengoitia: 'Kalamidade'.

—Ttikia, metro bat eskas, hamalauren bat kilo.

—Gizasemea.

—Ile horia, motxa.

—Piru edo ahate ibilkera: ipurdialde nabarmena eta gerriatik goitik xuxen-xuxen.

—Borrokari, sesiogile ikaragarria (ubelduak gorputz osoan, kopeta eta buruan gehienbat).

—Hizkera arrotza, ulergaitza.

—Laguntza eskatzeko arrazoia:

—Iruñeko Bigarren Zabalguneko Cipriano Olaso karrrikako 12. atariko 5. pisuko etxebizitza batean sartu, bazter guztiak xehetu eta hondatu eta bertatik atera nahi ez izatea.

—Etxearen jabe diren senar-emazteak, indarra erabiliz, izitu, ikaratu, beldurtu eta amenazteza.

Hona eginiko kalteak, zuzen eta zehatzago:

—Solairuko parketa zikindu eta penagarri uztea: janari hondarrak, esnea, ura, baita pixa ere bertan egin (kostako da hori behar bezala garbitu eta lehen zegoen moduan paratzea).

—Paretak pintatuak (orain erraten den bezala 'graffiti-z' edo josiak). Akabo lehengo goitelet xuri eman berria. Ez badute erakusketa antolatuta eta sarrera kobratzen...

—Diskoak aditzeko makinak orratzik ez. Musika-cassete guztiak lurrean han-hemenka. Dozenatik goiti dira zintak ateriak izan eta berriz erabiltzeko balio ez dutenak.

—Sei landare edo lore-ontzietatik bat bakarrik gelditzen da ukitu gabe.

—Besaulki-sofa baten gainean goitika edo bota izandua-aren bizpahiru arrasto, kolore diferentetakoak (ez zait beharrezkoa iduritzen usai konturik hemen paratzea). Marra eta pintura gehiago nonahi.

—Egongelako alfombra, ez da inportazioko garesti horietakoa, baina... pollita dago! (Erruki ditut hori zaborrontzira atera behar dutenak).

—Logeletako armario eta kajoak idekiak eta arropa multzoka lurrean, denean. Galtzerdi, braga, mukizapi, ... horietatik aunitz (garbi, itxuraz, halere). Gu sartu ginenean buru gainean, zapel modura, gantzontzilo bat zuela harrapatu genuen 'Kalamidade' hori.

—Lan egin edo ikasteko gela (etxebizitzaren jabeek irakasle edo paper aunitz erabili eta esku xuriendako lantegian ibiltzen direnak izan behar dute),

liburu eta aldizkari gehiago lurrean apaletan baino. Liburu frankotan orriak kenduak edo puskatuak. Idazteko makina norbaitek konpondu beaharko du.

—Komunean, bidet izenekoaren grifoak idekiak, ura kanpora ateratzen dela. Papera denean barna, bustia gehiena, roiloarekin norbait jostetan ibili dela seinale. Txanpu botila hutsik, bainontzian eta lurrean bait dago gehiena.

—Sukaldean, frigorifikoaren bi atek idekiak (hormaturik zeudenak akabo), hiru azulejo hautsirik

(berdinik ezin aurkitu Iruñea osoan), lau flater xehe xehe eginak (amaginarrebaren oparia omen, diru aunitz balio zutenak), leja ixuria. Bertzerik ez.

—Pasilloan dagoen telefonoak ez du haririk, ez haririk gabekoa delako, ez, harek moztua da.

—Gehigokorik ere bada, baina zertarako hemen aipa? Konparazio baterako, pentsa ezazue zer eginen ahal den honelako etxe baten barranean lau baloi eta pilota batekin, Bustingorri edo Arretxe bezalakoan sasoi duen hamazazpi hilabeteko muttiko basa bat hasten bada dinbi eta danba (alegia, pegamento fuerte horrekin mila 'adabaki' paraturik ageri direla dozena bat irudi eta ontzi tamaina eta balio guzietakoak, eta betirako desagertarazi direnak ez direla guttiago izanen). Hortik atera kontuak!

Behin behineko balorazioa: Afera latza. Lehenbiziko oharra: Lau urte t'erdiko Maritxoro 'Andereño' izan omen du konplize egin dituen azaina gehienetan. Hori ere gurekin dugu. Guille eta Mafalda. Bonnie & Clyde. Bigarren oharra: Etxebizitzaren jabeak, gurasoak alegia, Fiteroko Bainuetxera joanak dira, medikuaren aholkulari kasu eginenez. Gure esku utzi dituzte Deabrua eta Sorgina.

Hirugarren oharra: Gurasoak bueltatzen direnako tokia eskatu dezala norbaitek guretzat Fiteroko horretan, denen beharrez izanen gara eta.

(Kanguro-gurasozainek, laguntzeko deia hartu eta goitia-go aipatu etxera joan zirenean egin zuten txostenetik harturiko zatia).



Mikel Taberna Itzultzailea



**TXALAPARTA**  
Gure liburuak

78 Postakutxa

TAFALLA (Nafarroa)

Tel. (948- 70 32 77)



## Gazteendako Zokoa

### Hontza zuria

*Tyto alba*  
Elizdorretan ohi du bizilekua  
Osoa jaten du sagua  
Nafarroa osoan ugaria



### Saguzale amorratua

Hegazti eder askoa, lumak gozo eta suabeak ditu, eta kopeta alde-ara dituen kolore bitxiak oso aurpegi atsegina ematen diote. Aspaldian, gizakumeak gorrotatzen zuen, sorginkeria eta patu txarrak leporatzen bait zitzaizkion.

Begiak oso handiak eta beti zabaldua izaten ditu, baina bere ikusmena ez da beste harrapakariena bezain ona. Hala ere, buruarekin ia erabateko jira egin dezake. Duen entzumena apartari esker bere jangaiak diren arratoi eta saguak harrapa ditzake lasai asko. Zenbait kalkuluk diotenez, hontza zuriak 6.000-7.000 sagutxo inguru behar ditu urtero elikatzeko.

Sagua osoa jaten du, eta barruko zukuek zeharo desegiten dute. Ondoren, narru eta hezurak ahotik botatzen ditu, pilota baten modura.

Normalean, zuhaitzetan, elizdorretan edota hutsik dauden eraikinetan paratzen ditu kabiak, bai hiri nola herrietan. Hala ere, arkaitzetan ere aurki daiteke, eta iparraldean baseliza eta bordetan ere bizi ohi da.

Hain garrantzizkoa du elikadura, ezen eskasia izanez gero, batzuetan ez du erruten.

### KAZKARROAN

## Eguzkia ala elurra

Egunotako eguraldiaren gorabeheraren inguruan bertsoak.

Galdetu didazue  
zer dudan nahiago  
hotzak hilda ibiltzea  
ala epelago  
udako sargoria  
ahaztu nahi dut zeharo  
zeruko eguzkia  
Afrika hortan bego

Behin Tarragona aldera  
joana oporretan  
tostatzen sarri nintzen  
hantxe eguzkitan  
gorputz osoa erreta  
ta hau ez da txantxetan  
ez zait hala gertatu  
mendiko elurretan

Benetan gozatzia  
nahi bada frogatu  
hartu kotxea ta eskiak  
ta Izabara abiatu  
ongi pasatzeaz gain  
bentajak baditu  
erreza dugu beraz  
zeinekin gelditu

Iruñeko AEKko bertso eskola

### BELTZANE BIURRUN

Iaz, Lizarra aldean nenbilela, soro handi bat ikusi nuen, bertan landare arraro batzuk landaturik zeuden. Lehenengo begiradan nahiko atseginak iruditu zitzaizkidan, baino ze nolako kalteak dakartzaten jakiterakoan, beste begi batez begiratu nituen, dudarik gabe. Tabakoaren landarea zen, lehen aipatu bezala, kalte handiak eragiten dituzte, birika eta bihotzean batik bat.

Tabakoa kotsumitzen duten gizonen % 15 infarto batek jota hiltzen da. Emakumeen kasuan, ordea, % 31 da. Baina ez da tabakoa txarra, honek dauken nikotina baizik. Produkto toxiko honi gorputzean sartzen denetik zazpi segundu kostatzen zaio burmuinetara iristea. Hemen dagoenean nerbio batzuetan kokatzen da, eta hemendik dependentsia sortuko da, merbio hauek eskatzen bait dute beren eguneroko nikotina, arrazoi honengatik hain da zaila erreteari uztea.

Ziur, galdetuko diozuela zuen buruari nondik sortu den tabakoa erretzearen ohitura; bada erantzuna oso sinplea da. Aintzinatik dator tabakoa, historia guztian ezaguna izan bait da, baina lehen ez zen sistematikoki hartzen, paktu edo itun bat sinatzeko edota, erabakiak hartzerakoan erretzen zen tabakoa. Hemen adibide bat dago, lumak zeramatzen indioak pakea adierazteko, pelikuletan ikusten den bezala, pakearen pipa erretzen zuten. Baina ohitura hau garatzen hasten da egunero zigarro pakete bat erre arte.

Tabako mota asko daude; erretzen direnak, murtxikatzen direnak, esnifutzen direnak eta beste mota batzuk ere badaude. Baina gehien erabilitakoak, erretzen direnak dira, hemen ere hamaika motatan sailka ditzakegu: zigarroak, puroak, piparako tabakoa, eta beste asko ere bai.

## Tabakoa



## Hotza besterik ez

### IVAN MENDIOROZ

Haizeak ilea aurpegitik kendu zidan, nere pausoak gelditu eta aurpegia altxatzerara behartu ninduen. Ezin nuen ezer ikusi, nire begietako malko gatzadunak berantz zihozten. Begiak erdi itxi, burua jeitsi, eta ibiltzen jarraitu nuen. Hotza, hotza besterik ez nuen sentitzen. Nire sudurretako mukiek ahora helterakoan gelatuak ziruditen. Esku bat poltsikoan, bestea malleta garraiatzen. Ez mituen nire behatzak nabaritzen.

Bidea bustia, nire pausak

txikiak eta bapatean haizea gogorki jo ninduen eta nire eskuinteko oinak irrasta egin zuen. Nire gorputza arkaitz bat bezala lurreratu zen, buruak, harri baten kontra jo zuen. Ezin nintzen mugitu, hilik nengoen?. Dena iluna zegoen, eta orduan ikusi nuen: belardi berdeak, udaberriko ur gardena, behiak beltzak, txuriak eta gorriak, lodiak eta meheak, txikiak eta handiak, adarrekin eta adarrik gabekoak.

Orduan usaindu nuen, usain goxoa, zer zen ez nekiena, baina goxoa bai, gustokoa nuen. Etxe

bat ikusi nuen, ate gorri gorri handi batekin eta lehioz beterik, paretak zeharkatu nituen, mamua, hil mamua izateko?. Barruan sukalde bat. Usaina nabariagoa egin zen. Sutondo handi bat, erdian, suaren gainean, lapiko bat, burua hurbildu, ikusi barruan eta ura bakarrik. Bapatean, sukalde urrundu zen, berarekin sukalde, paretak zeharkatu nituen, etxetik atera, atea atzean utzi, baina behiak joanak ziren, belardiak ere bai, ibairik gabe gelditu nintzen, usaina kendu zen, ez zegoen ezer, dena berriro beltza zegoen, hotza.

### KONTRAPASA

Erantzunak zehaztuz joan ahala, pasa ezazu letra bakoitza dagokion laukira. Beheko taula osatu ondoan Larraunen jasotako esatera zahar bat ageriko zaizu

1. Jentila
2. Hatsa
3. Jarria
4. Erakustokia
5. Punta, muturra

A	3	D	11	A	4	B	11	B	4	A	1
D	7	A	2	D	5	B	3	B	5	D	2
A	10	D	3	A	9	D	10	A	7	B	7
D	9	B	10	D	8	B	9	B	6	A	5
D	4	A	6	B	2	D	1	A	11	A	8

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11
A											
B											
D											

N-17

Alderdi politiko batean sartu nahi duen bati galderak egiten dizkiote:

—Zer egingo zenuke kinnielatan hamar milioiak jasoz gero?

—Partiduari emango nioke.

—Eta gaztelu baten jabe bazina?

—Hura ere partiduari utziko nioke.

—Eta behi baten jabe izanez gero?

—Hor ez nauzue engainatuko, ni baserritarra naiz eta.



## Bizi Bizian

# Bertako basoak birlandatzeko

**A**NAT-LANE Nafarroako talde ekologistak bertako zuhaitz eta zuhaixken mintegi berriak paratu zituen iaz Labianon (Aranguren). Birlandaketak egiteko orduan pinuak eta antzeko espezieak erabiltzen zirela bazekiten ekologistek, baina ez hain zaila izan zitekeenik bertako landareak lortzea. Hori dela eta, kanpaina berri bati ekingo diote laster udal eta ikastetxetan, orain hazi eta landare txikiak baino ez direnak baso dotore egin daitezten. Egun, 20.000 landare inguru dute dagoeneko, hamazazpi espezieta-koak.

M. KAPITANSORO / LABIANO

Aranguren ibaian, Labianon, Taxoareko mendizerra eta Zadar ibaiaren artean daude mintegiak. Behiala erreserba naturala egiteko proiektua ba omen zegoen bertan. Denborarekin, eta zenbait interes tartean, ahaztu egin zen baina. Egun Iruñerriko Mankomunitateak bere zaborrak eraman nahi ditu hortik ez oso urruti, Gongorara. Mendietan, ohizko birlandaketak: pinuak, batez ere, zenbait haritzekin tartekatuta.

Hor bertan paratu ditu ANAT-LANE talde ekologistak bere hazi berriak, taldeko kide batek utzitako lurretan. 1990ean burutu zuten kanpainaren barruan, hazi franko jaso zuten Nafarroa osoan zehar, lurralde honetan berezkoak ziren espezieta-rik. 1991ko hasieran ekin zioten landatu eta ereiteari, eta egun, 20.000 landare inguru dute, bai zuhaitz nola zuhaixka, gehienak urte bat eta hiru bitartekoak.

Hamazazpi landare mota izanik, hurrengo urteetan kopurua igoko dutelakoan daude taldean. Egun daudenak pagoa (*Fagus sylvatica*), intsusa (*Sambucus nigra*), makala (*Populus nigra*), sahatsa (*Salix purpurea*), haritza (*Quercus robur*), ametza (*Quercus faginea*), artea (*Quercus ilex*), ezkia (*Tilia platyphyllos*), erratza (*Ruscus alecuatus*), ezpela (*Buxus sempervivens*), aleppo pinua (*Pinus halepensis*), abaritza (*Quercus coccifera*), urritza (*Corylus avellana*), lizarra (*Fraxinus angustifolia*), astigarra (*Acer pseudoplanatus*), milazka (*Tamarix canariensis*) eta intxaurrenondoak (*Junglans regia*) dira.

**KANPAINA UDAL ETA IKASTETXETAN**

Horietako landare asko jadanik erabiliak izan dira birlandaketa zenbaite-tan eta baita Zuhaitzen Egun batzuentan ere, baina talde ekologisten asmoak haruntzago doaz, Javier Baztan bertako arduradunak azaldu duenez. «Mintegi hauek martxan daude dagoene-



Mintegi hauetan uzten dituzte haziak, landare egin arte.

M. KAPITANSORO

ko, eta luze gabe kanpaina bati ekinen diogu, birlandaketak Nafarroa osoan hasteko. Horretarako, eskeintza eginen diegu udalei, bai mintzaldiak nola ikastaroen bidez, birlandaketan hemengo espeziekin egin dezaten. Kanpainaren bigarren urratsa ikastetxeetan eman nahiko genuke, ikus-entzumenezko eta triptikoen bidez, birlandaketak nola egiten diren erakusteko».

Horrela, eta udalekin lortutako akordioen bitartez, birlandaketak ikasleek beraiek egitea da asmoa,

hazi batetik zuhaitza bateraino doan prozesu guztia beren eskutetan egon dadin. Hor dituzte paratuta gogo gehienak, eta hil honetan aurkeztuko dute egitasmoa.

Horrekin batera, bertako landareak aurkitzeko zailtasuna izan da asmo honetara bultzatu duen beste arrazoietakoa bat. 'Paratu zuhaitz bat zure bizitzan' izeneko kanpainarekin hasi zirenean, ANAT-LANEkoak berehala jaketu ziren Nafarroako Gobernu-ko mintegietan ez zegoela berezko landareak lortzeko aukera

handirik. Talde ekologistaren ustez, «horrelako eskeintza ez emateaz gain espezie arrotzekin egiten diren birlandaketak bultzatzen dituzte behin eta berriro».

Mintegia oraindik ez dago partikularrei zabaldua, baina aukera hori ez du baztertzen taldeak. «Orain udal eta ikastetxe-kin kanpainari ekin nahi diogu, heldu den urteari begira —dio Baztanek—, baina hau zabaltzen bada, litekeena ere aurrerantzean publikoari irekia izatea. Talde-dako etekin politikak lirarteke».

## «Nafar Gobernuko mintegietan ez dago landareak lortzerik»

M.K. / IRUÑEA

«Ez da erreza, garai hauetan, larunbatero, goizeko hamarretarako gazteak hona ekartzea, landare eta lurrarekin aritzeko», azaldu du Javier Baztanek. Baina Labianoko dermioan, agian eguerdi partean dagoen hamai- ketako dela kausa, akaso denen artean dagoen giro jatorragatik, ez da falta izaten laguntzarako prest izaten direnak.

Lana ez da nekosoa, baina bai orduak sartzekoa. Lehendabizi, hazi guztiak lurrarekin (turba) nahastu, eskuz. Horri harkaitz bolkanikoetatik ateratako 'perli- ta' izeneko botatzen zaio, honek babesa ematen bait du hotza zein hezetasunaren aurka. Lurra, ondoren, kaxatan sartzen da, erle- tokien antzerako tokietan, eta mintegietan kokatzen dira, bertan haz daitezten.

Landarearen lehendabiziko ostoa lurpetik atera eta gero, mintegietatik ateratzen dira lur eta guzti, eta papera begetalaz egindako poltsatxoan barruan sartzen dira. Hor izaten dituzte

pare bat urtez, zailtzen den bitar- tean, Baztanek adierazten duen bezala. «Landarea atera eta be- rehala mendira eramango bage- nu, litekeena aurrera egitea, bai- na nahiago dugu hemen zailtzea, kanpoan. Horrela, guk zaintzen dugu, eta bi urte pasata mendira eraman daiteke arazorik gabe».

**A**rangurengo Uda- lari lursailak eskatu dizkio taldeak, eta oso harreman onak dituzte beraiekin. «Bizia eman nahi diogu ibar honi, zaborte- giaz aparte ere zer- bait badagoela era- kusteko».


**BERTAKO LANDAREKIN BIRLANDAKETAK**

Birlandake- tak jadanik hasiak dituz- te zenbait lekutan, eta Arangu- rengo Udalar lursailak eskatu dizkio taldeak, ia herri guztietan.

Hain zuzen ere, oso harreman es- tua eta ona dute Udalarekin. «Bizitza eman nahi diogu ibar honi, zaborte- giaz aparte ere gau- za gehiago dagoela erakusteko».

Hau beste herri askotara ere zabaldu daitekeelakoan daude. «Seguru gaude —dio Bazta- nek— harrera ona izango dugula udaletan, bertako zuhaitzak pa- ratzea beti gogoko bait dute ber- takoek. Gainera, Nafarroako Gobernuak horretarako aukera bat ere ez duela ematen ikusita, orain arte ez da horrelako auke- rarik izan. Nafar Gobernuako mintegietan ez dago bertako lan- dareak lortzerik. Baina behin az- tertuta, honek arrakasta izango du, dudarik gabe».

Antzeko ekimenek Espainiako zenbait lekutan ere aurrera egin dute, «beti talde ekologisten bul- tzadari esker», baina dirulagun- tzak eta aukerak murrizt, sama- rrak izan ohi dira beti. Hori dela eta, Nafarroako Gobernuaren di- rulaguntza eskatzeko asmoa ba- dute, eta luze gabe Ingurugiro kontseilariarekin bilduko dira ANAT-LANEkoak.



Landare eginda, kanpora ateratzen dira.

M. KAPITANSORO



## Patziku Perurena

Idazlea

# «Ez dago munduan kolorea ez duenik»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

**EGUNKARIA.**— Zure lan honetan zer aztertu duzu, koloren tratamendua, edo euskaldunek eman nahi izan dioten erabilera?

**PATZIKU PERURENA.**— Lan honetan aztertu dut jeneralean euskaldunek nola erabiltzen zuten kolorea, eta tituluak horrela adierazten du: 'Koloreak euskal usarioan'. Euskal tradizioak kolorea nola erabili duen, literaturak, nere inguruko herriek... eta gero etxekoie ere galdetu izan diet. Toponimia ere aztertu dut.

Kolorea dago leku guztietan. Deus ez dago munduan kolorea ez duenik. Esate baterako, erdaraz esaten da urak ez duela kolorerik, baina euskaraz badauka. Adibide bat aipatzeko, Irati ibaia biltzen diren bi ibai koxkorrek Urtxuria eta Urunbeltza dira.

**EGUNKARIA.**— Eta zergatik euskaraz urak eta haizeak, kasu, badute kolorea, eta beste hizkuntzetan ez?

**PERURENA.**— Hori nik ez dut aztertu. Nik ez dut kanpoko hizkuntzekin konparazioak egin. Nik egiten dut euskararen testigantza bat. Kanpoko herrietako kasuetan ez dakit nola erabiltzen den. Esate baterako, garbi dago hiru koloreak erabiltzen direla tradizio zaharretako kulturetan: txuria, beltza eta gorria. Hori toponimia guztietan agertzen da, eta baita abizen zaharretan ere. Hauetaz aparte, lehen zeuden

beste kolore nabarmenak nahi-siak dira nolabait esateko: urdina eta nabarra.

**EGUNKARIA.**— Urari, adibidez, kolorea ematerakoan, zer hartzen da erreferentziatzat?

**PERURENA.**— Horrek badu esplikazio garbi bat. Urak pasatzen den lekutik hartzen du kolorea. Adibidez, lur txuria esaten zaio harri zuria dagoen lekuari. Erreka bat heltzen bada har txuria dagoen lurrara, horri esango zaio ur txuria. Beste bat heltzen bada lur beltzera, horri ur beltza. Ur gorria, mehatz lurretara heltzen duen.

**EGUNKARIA.**— Hiru kolore horietatik gaur egun ezagutzen ditugun koloretara pasatzeko bide hori nola sortzen da?


**PERURENA.**—

Zaila da esatea, baina, adibidez, berdea Oihenartek berak aipatzen du, eta duela hirurehun bat urte sartuta dago jadanik. Baina, gaur bertan, oraindik berdeari prejuizio batzuk leporatzen zaizkio, erdal kutsua balu bezala.

Txillardegik berak esaten zuen aspaldian hori kontradizio bat zela. Mendebaldeko zazpi koloretako estruktura jasotzen dugunean, estruktura hartzen dugu, baina gero ez gaude konforme hor azaltzen denarekin. Esate baterako, berdeak duen matizazioa nahi dugu, baina 'berdea' hitza ez dugu erabili nahi. Orixek berak ez zuen berdea erabili nahi, eta garbizaleek gero 'orlegia' sortu zuten. Hau kontradizio bat da, eta euskal sena erabili nahi badugu, ezin du-

**P**atziku Perurena idazle goizuetarrak irabazi berri du Errenteriako udalak antolatutako Koldo Mitxelena II. saria, hizkuntzalaritzaren inguruko lanetarako. 'Berdatea' izeneko lanean, koloreen tratamendua euskal usarioan aztertu

du idazleak, bai literaturan eta testu zaharretan nola gaur egungo erabileran ere. Hain zuzen ere, 'Nafarroa Gaur' euskarazko gehigarrian argitaratu zituen Perurenak koloreen inguruko saioak, eta oraingo bilduma izan da sariaren irabazlea.



Patziku Perurena.

JOXE

gu berdea erabili, matiza hori ez duelako euskal senak. Urdinarekin gauza bera gertatzen da. «Zeru urdina» esatea gauza normala da gaur egun, baina inork ez du esango «asto urdina», baserriar batek ezik.

**EGUNKARIA.**— Nonbait mantentzen al da oraindik lehengo koloreen erabilera hori?

**PERURENA.**— Kasik galdu egin da, baina baserriarrek oraindik mantentzen dute. Berdearekin beste zerbaite esan nahi nuen. Uda giro batean, adibidez, hamabost

egunetan eguraldi txarra baldin badago, lainoa, txar samarra, lardatsa... berdatea esaten zaio. Eta ume bat gaixorik baldin badago, berde kolorea duela esaten zaio. Berdea kolore arrotz bezala hartua da. Urdinak, adibidez, asimilatu ditu beste koloreak, baina berdeari esan zaio arrotza.

**EGUNKARIA.**— Eta zergatik berdea espreski?

**PERURENA.**— Nik ez dakit zergatik, oso kuriozosa da. Kantetan ere horrela agertzen da, eta grazia emateko edo, berdea erabiltzen

da askotan, gauza arraroa bezala.

**EGUNKARIA.**— Desberdintasun handiak somatu dituzu literatura zaharrak eta ahozko erabileren artean?

**PERURENA.**— Desberdintasun haundirik ez dago, baina matizazioak denak galdu dira. Baina hori gertatu da ez koloretan bakarrik, euskal tradizio guztia galdu egin delako. Inork ez du erakusten eta bakarka egin behar da lana. Giro bat baldin balego! Eskoletan tradizioa erakutsiko balute, edozer gauza egiterakoan hori ezaguna izango litzateke. Baina tradizioa nola galdu egin den, nahiz eta euskaraz bizi, beti hartzen da kanpotik etortzen den erreferentzia. Koloretan gauza bera gertatzen da.

Lan honekin nik egin nahi izan dut testimonio antzeko zerbaite, eta baita sinbologi pixka bat ere bai. Zaldi txuria agertzen bada, horrek zer sinbolismoa daukan esplikatu, eta abar.

**EGUNKARIA.**— Zure ustez, lehengo koloreen erabilera berreskuratzeak zentzurik izango al luke?

**PERURENA.**— Zerbaite eustea ez dut uste gaizki dagoenik. Zazpi koloretako erabilera hori guztiz sartua dago, eta hori onartu egin behar da. Baina nik egin nahi izan dudana izan da erabilerak jasotzea, jendeak izan dezala arreta gehiago kolorei buruz. Izan ere, beste gaitza bat dago hor. Zuk nahi baduzu euskal poeta baten lana itzuli, eta azaltzen bada urdina, arazoa hor dago. Zer da, zaharra edo berria? Beste edozeinekin, igoal.

Garbi utzi behar da, hala ere, euskaldunen erabilerak beste hizkuntzen antzekoak izan direla, erdaraz ere hiru kolore horiek nagusiak zirelako betidanik.

NOSKI JATOR

ZVLDI EROA

